


Nori idatz nahi diozu GUTUNA?

janireassopsicopedagogia.com



Gutun bat idatzeko komunikabide bat da, pentsamenduak, sentimenduak, informazioa edo asmoak modu pertsonalean eta formalean transmititzeko aukera ematen duena. Helburu pertsonal edo profesionaletarako erabiltzen bada ere, gutun batek ideia zehatz eta koherenteak adierazteko plataforma bat eskaintzen du, denboran zehar partekatu eta gorde daitezkeenak. Gutunen bidez, pertsonen konexio esanguratsuak egin ditezakete, gai garrantzitsuak konpondu eta komunikazio eraginkorra mantendu, distantziaren eta denboraren oztopoak gaindituz.

NOLA EGIN?



Edozein testu motak bezala, gutuna ere bere egitura du. Baina hori, aldi berean, bidali nahi dugun testu motaren arabera da. Bigarren kasu honetan, gutun informala landuko dugu:

DATA

Hasierako agurra

Hasiera: Zertaz hitz egingo dugun edo egoeraren azalpena
Gorapiloa: Aukeratutako gaiaren azalpena, adibideak...
Amaiera: Zer eskatzen duzun, zen nahi duzun....

Amaierako agurra

Sinadura

Gainera, gogoratu lokailuak oso garrantzitsuak direla. Jarraian, zerrenda bat eskainiko dizut, lagungarria izan dakizun. Hala ere, oso interesgarria izango litzateke gehien gustatzen zaizkizunekin zerrenda propioa osatzea.

Orain , eskutitzaren atal bakoitza aztertuko dugu. Modu horretan, eskutitza egiteko era ezberdinak ikañiko ditugu eta gusutukoena aukeratu dezakegu.

ATALAK

Data

- 1.-Urtea, hilabetea, eguna
2018ko otsailaren 1a
2018ko otsailaren 1an
- 2.-Egutuz: 1a, 2a, 4an, 5ean, 11,31
1ean, 2an, 3an, 4an, 5ean, 11n, 31n

Hilabeteak

Urtarrila, otsaila, martxoa
apirila, maiatza, ekaina,
uztaila, abuztua, iraila,
urria, azaroa, abendua

Kaixo!
Egun on!
Arratsalde on!
Aupa!
Kaixo lagun!
Epa!

Kaixo maitea!
Aupa, nola zaude?
Kaixo! Aspalditik ez dugu hitz egin.
Kaixo! Espero dut ondo egotea.
Egun on, nire lagun maitea!

Gaiaren aurkezpena

A causa de...	...dela medio... / ...dela bide...
A consecuencia de...	-(r)en ondorioz
A la atención de...	-(r)entzat
A petición de...	-(r)en eskariz -(e)k eskatuta
Acabo de recibir...	Jaso berri dut...
Acusamos recibo...	...jaso dugula adierazi nahi dugu... ...hartu dugula jakinarazi nahi dugu...
Adjunto remito...	Honekin batera doakizu... Honekin erantsi dirugu...
Agradecemos...	Eskertu nahi dugu... Gure eskerrak eman nahi...
Agradeceríamos que...	Eskertuko genuke...
Con motivo de...	...dela eta...
Contestando a...	-(r)i erantzunez...
De acuerdo con...	-(r)en arabera -(r)ekin bat etorritz
En nuestro poder...	Gure eskutetan... Esku artean...

En respuesta a...	-(r)i erantzuna eman nahian
He recibido...	... jaso dut...
Lamentamos	Sentitzen dugu... Zoritsarrez, esan behar dizut...
Me complace...	Atseginenez...
Me es grato...	Atsegin dut...-(e)la
No habiendo recibido contestación...	...erantzunik jaso ez dugunez gero...
Para su conocimiento	Jakin dezazun... -(r)en berri izan dezazun
Ponemos en su conocimiento	Jakinaraziko dizugu... Zu jakinaren gainean jarriko zaitugu...
Poner al corriente	Egunen jarri
Por medio de...	Honen bidez... Honen bitartez...
Por razones que Ud. sabrá comprender...	Ulertuko dituzun arrazoiaik direla eta...
Rogamos que...	Mesedez...
	Eskatu nahi dirugu... Eskatu nahiko genizuke...

Según sus instrucciones	Zuk agindu bezala
Tenemos a su disposición...	Zure eskura jartzeko daukagu... Zuretzat dugu... Hemen dugu zuretzat...
Tener conocimiento de...	-(r)en berri izan... -(e)la jakin dugu...
Tengo el gusto de...	Pozarren...
Tengo el placer de...	Pozik...

Gorapiloa

Ordenatu ideiak konektoreekin eta, idatzgi gutuna.
Gogoratu honelako gaizak: ez dira hitzak
errepikatu behar, testuak koherentea izan behar
du... eguna

Agur!
Ondo izan!
Besarkada handi bat!
Musu handi bat!
Laster arte!
Ikusi arte!
Ondo segi!

Ondo izan eta laster arte!
Besarkada handi bat bidaitzen dizut!
Zure laguna,
Maitasunez,

Eskutitza errazago egin dezazun, lehenengo bat egiteko , eskema bat aurkeztuko dizut. Honetan ia guztia eginda izango duzu, esaldi gutxi batzuk izan ezik, zeinek zuk bete behar izango dituzu.

2023ko ekainaren 2a

Kaixo

Zelan zaude? Oraín dela denbora asko ez dugula hitz egiten. Zelan familia? Ni beti moduan nago, ondo. Beno, idazten dizut azken (egunetan / asteotan / boladan) (zer gertatu den edo zer egingo duzun) azaltzeko. Egia esan, (nola sentitzen zaren) sentitzen naiz eta horren ondorioz, (edo zer pentsatzen duzun) pentsatzen dut/ pentsatzera eraman nau.

(Problema bat bada:)

Hori dela eta, (ondorio bat). Gainera, (beste xehetasun edo sentimendu bat). Horretaz aparte, (beste xehetasun edo sentimendu bat). Adibidez, (eman adibide bat zure lekuan jartzeko). Esandakoa esanda, ez dakit nola konpondu, baina pentsatu dut zuri kontatzea, agian zerbaít bururatzen zaizulako.

(Bidaia bat bada:)

Pozik nago, izan ere, laster (nora zoazen / norekin / noiz). Asmoa dut (zer egingo duzun edo zer ikusi nahi duzun). Esate baterako, (egingo dituzuen gauzen lista bat). (sentimendui bat azaldu egoera dela eta) Gustatuko litzaídake zuk ere etortzea / bertan egotea!

Amaítzeko, (zer espero duzun edo mezu labur bat).

Agurra:

Ondo izan eta laster arte!

Besarkada handi bat,

[Izena]



Data:

Agurra: Kaixo!

Idazten dizut azkenaldian gertatu zaidan zerbait kontatzeko.

Azken (egunetan / asteotan / boladan)

Egia esan, nahiko zaila izan da, eta (ondorio bat).

Horren ondorioz, (beste ondorio bat).

Ez dakit oso ondo nola konpondu, baina pentsatu dut zuri kontatzea, agian zerbait bururatzen zaizulako.

Nire ustez, konponbiderik onena (zure proposamena edo ideiarene bat).

Zer iruditzen zaizu?

Ondo izan eta laster arte!

Besarkada handi bat,

[Izena]

Data:

Agurra: Kaixo!

Idazten dizut berri on bat emateko!

Laster (nora zoazen) joango naiz, eta oso pozik nago!

Bidaia hau egingo dut (zergatik: oporrak, familia bisita, ikasketa trukea...).

Asmoa dut (zer egingo duzun edo zer ikusi nahi duzun).

Gainera, (beste xehetasun bat: norekin zoazen, zenbat denboraz...).

Benetan gustatuko litzaidake zuk ere etortzea, edo itzultzean kontatzea nola joan den dena.

Ondo izan eta laster arte!

Musu handi bat,

[Izena]

